



### **ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Agiñastegi.

**Auzoa, udalerrria:** Santiagomendi., Astigarraga.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren ataurreko txabolaren eranskinean.

**Jabea:** Zapiain-Arzelus familia.

### **DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Aurten 4 urte bete dira sagarra jo ez dutela.

**Zenbait datu:** Duela 35 bat urte ekarri zuten tolarea Urnietatik, eta orduan hasi omen ziren sagardoa egiten. Donostiako ingurabide berriak, bere onenean zegoenean egundoko sagastia bota zietelako, utzi zioten, besteak beste, sagardoa egiteari. Azkeneko urteetan, prentsa oso mantsoa zela eta, katu hidraulikoak erabili zituzten.

**Egungo erabilera:** Bere horretan dago. Trastelekua.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

### **TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

#### **Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko muturra hariztatua duena. Zati horretan muntatua, eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko karraka mekanismoa eta urkaz osatua. Kasu honetan zurezko urkaren ordeztu altzairuzko perfil bikoitza darama. Hormigoizko askak kantamera edo alboetako hormarik ez duenez, bertikalean jarritako oholtzoz osatutako sarea jartzen zaio inguruan prentsatu behar denean. Askaren bazter bateko zulotik behera, tolarepeko satora isurtzen da muztioa, eta plastikozko tutu bidez, balde batera bideratu eta upeletara eraman.

#### **Dolarearen osagarriak:**

- Oartzungo Balerio baserriatik ekarritako matxaka motorduna. Sorbalda gainetik sagarrez betetako zakuak irauli eta matxakara bideratzeko zurezko hodia eransten zaio tolbari. Motorra, ordea, informatzaileak berak egindako beste matxaka zaharrago batena da. Prentsaren lehenengo urteetan, haiz zuzen ere, akaziazko hortzak dituen matxaka hori erabili zuten.

- Sare barnean jarri behar diren egur eta oholak.

- Altzairu herdoilgaitzeko upela, baserrian.

**Argazkiak:** 13.01, 13.02, 13.03.

### **GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, Astigarraga, upela.

### **OHARRAK**

### **GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Isidro Zapiain, jabeetako baten senarra.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 16a